KONGRESUA

KOMUNITATE SENTIMEDUAREN PRINTZIPIOA

Printzipioaren aplikaziotik sor daitezkeen ondorio juridiko eta ekonomikoak

Azaroaren 17 eta 18an Deustuko Unibertsitatetik online bidezko emanaldiarekin Komunitate sentimenduaren printzipioari buruzko Kongresua ospatu da, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarteak, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak antolatuta. Bi jardunaldietan zehar, printzipio honen aplikaziotik sor daitezkeen ondorio juridiko eta ekonomikoak jorratu dira. Kongresua Zoom plataformaren bitartez egin da eta 150 partaide baino gehiago konektatu dira egunero

Gema Tomás Martínez, Zuzenbide Fakultateko Dekanoa

Jokin Díaz Arsuaga, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaria

José Miguel Gorostiza, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren ordezkaria

Enrique Gadea, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkartearen lehendakaria

Kongresuaren aurkezpena Enrique Gadea jaunak, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkartearen lehendakariak, Jokin Díaz jaunak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendariak, José Miguel Gorostiza jaunak, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren ordezkariak, eta Gema Tomás andreak, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Dekanoak egin zuten.

Lehenengo saioa Santiago Larrazabal Basáñez jaunak zuzendu zuen.

Kongresuaren mahaia mahaiburu eta lehen hizlariekin

Javier Divar: “Un enfoque histórico y doctrinal del principio de sentimiento de comunidad”

Lehenengo jardunaldian, Kongresuko lehen mahaian, Javier Divar doktoreak esan bezala, hasiera-hasieratik kooperatiben ardura euren inguruaren gainean erakutsi zuten. Horrela, herriko biztanleak alfabetatzeari buruzko kezka eta alkoholikoen birgizarteratzeari buruzko ardura izan zuten. Hortaz, zazpigarren printzipioa kooperatiben izaeran bertan dago. Eta 1992z geroztik, garapen iraunkorra lortzea gehitu zen kooperatiben balio bezala. Zazpigarren printzipioa gizarte-justiziaren balioarekin lotu behar da, osterantzean itxura hutsa baita korporazio handien kasuan bezala.

Alejandro Martínez Charterina: “Un enfoque histórico y doctrinal del principio de sentimiento de comunidad”

Jarraian, Alejandro Martínez Charterina doktoreak zazpigarrena ACIk onetsitako azken printzipioa dela azpimarratu zuen. Kooperatibek komunitate-sentimenduaren printzipioa euren gain hartzen dute euren izaeragatik edo identitateagatik, sozietate kapitalistekin gertatutakoaren aldera (horientzat kanpoko ezaugarria baita). Printzipio horren bidez, kooperatibek euren komunitatearen garapen iraunkorra bilatu nahi dute, bazkideek komunitatean errotuta daudelako; ingurumena, kultura, gizartea eta ekonomia garatu nahi dira. Azken batean, printzipio horrek bat egiten du enpresaren gizarte-erantzukizunarekin.

Dante Cracogna: “El significado del 7º principio de la ACI”

Azkenik, Dante Cracogna doktoreak printzipio honek kooperatibentzat duen identitate-izaera nabarmendu zuen. Hiru ideia nagusi azpimarratu zituen: batetik, garapen iraunkorra, kooperatibek oraingo eta etorkizuneko belaunaldien alde lan eginez, ingurumenaren arloan ere; komunitateen garapena, kooperatibaz gain komunitate osoa parte hartuz; eta bazkideek onetsitako politikak, bazkideek erabaki behar dituztenak eta ez kooperatibatik kanpokoek.



Enrique Gadea: “El tratamiento de los fondos obligatorios de las sociedades cooperativas como mecanismo de solidaridad”

Jarraian, Enrique Gadea doktoreak erakutsi zuenez, kooperatibak derrigorrezko funtsak berau kokatuta dagoen komunitateari laguntzeko erabili beharko lituzke. ACIren printzipioei ekinez, kapitalaren zati bat kooperatibarentzat izan beharko litzateke eta ez bazkideentzat, baina ACIk ez du debekatzen funts propioak banatzea. Funtsak banaezinak izango dira Espainiako legeetan mutualismoaren ideia oker batean oinarritu direlako, kooperatibek irabaz asmorik ez dutela sinestaraziz. Azken urteotan, ostera, autonomia-erkidego batzuetan derrigorrezko funtsak banatzea onartu izan da. Gadea doktorearentzat erreserba banaezina egon behar da eta ez da lotu behar sarreren kooperatibaz besteko izaerarekin. Funts banaezinak etorkizuneko belaunaldiekin konpromisoa erakusten du, kooperatiba gainerako enpresa motetatik bereiztuz.

Daniel Hernández Cáceres: “La recepción del principio de interés por la comunidad en el Derecho positivo”

Jardunaldiaren azken hitzaldian zazpigarren printzipioaren isla aztertu zen Espainiako legeetan. Zazpigarren printzipioa sakabanatuta dago arauzko manu ezberdinetan zehar, esaterako, kooperatiba definitzean, printzipioak aipatzean, hezkuntza eta sustapeneko funtsean, kooperatiba mota batzuetan indar gehiagorekin (nekazaritza, kontsumitzaile eta erabiltzaile, gizarte-ekimena eta gizarteratze…) Adibidez, Euskadiko, Kataluniako eta Andaluziako legeek, kooperatiba zer den definitzean, komunitatearekiko interesa aipatzen dute. Horrez gain, Andaluziako legeak kooperatiben printzipioen artean zazpigarrena garatzen du. Hezkuntza eta Sustapeneko Funtsa da kooperatibaren tresnarik handiena komunitate-sentimendua lortzeko.

Azaroaren 18an bigarren jardunaldiari ekin zitzaion Eba Gaminde Egia andreak zuzenduta.

Eba Gaminde Egia, Kongresuko bigarren jardunaldiko mahai-burua

Gonzalo Martínez Etxeberria: “La importancia de extender a la Comunidad el mensaje cooperativo”

Lehendabizi, Gonzalo Martínez doktoreak nabarmendu zuenez, kooperatibak zein komunitatetan parte hartu nahi duen zehaztu behar da. Kooperatibaren interesak kooperatiba bera gaindituko luke eta kooperatibak diharduen komunitatera helduko litzateke. Era berean, komunitate horretan kooperatibak garatzeko interesa ere badago, 1978ko Konstituzioaren 129. artikuluak erakusten duenez. Kooperatibaren helburu den komunitatea zehazteko, lege batzuek

kontsumitzaileak aipatzen dituzte, edota erabiltzaileak, langileak, hornitzaileak ala inbertsoreak. Komunitatea zehaztuko da, beraz, kooperatibako bazkideek hartutako erabakiaren arabera.



José Eduardo de Miranda: “El sentimiento de comunidad y la redención social”

Jarraian, Miranda doktoreak azpimarratu zuenez, kooperatibaren identitatearen baitan kooperatibaren printzipio eta balioak daude. Kooperatiba sendotu behar da gizarte-oinarri batean, eta komunitatearen eta kooperatibaren arteko harremanak sortzen dira. Ingurumenari buruzko kontuak gorabehera, kooperatibak bilatu behar du gizakiaren iraupena, kooperatiba kokatuta dagoen komunitatearen baitan. Horiek horrela, komunitateari heziketa kooperatiboa eskaini behar dio, kooperatiba-espirituaren azalpena, gizakiaren duintasunari begirune sakona...



Vega María Arnáez Arce: “La adjudicación de los contratos públicos de servicios y concesión de servicios a favor de sociedades cooperativas”

Hirugarrenik, Arnáez Arce doktoreak Garapen Iraunkorraren Helburuak eta 2030 Agenda jorratu zituen kontratazio publikoarekin eta kooperatibekin lotuz. Helburu horien artean kokatu behar dugu kontratazio publikoa gizartearen aurrean erantzulea denean, hots, ingurumen- eta gizarte-irizpideak bete dituenean kontratu publikoak egiteko. Eta kooperatibak sustatzeko gaurko erronkarekin bat egiten du, gizarte-konpromisoa dutelako eta interés orokorra garatzen dutelako hezkuntza, osasun, ingurumenaren arloetan. Kontratu publikoak kooperatibei esleitzea garrantzitsua da zazpigarren printzipioari begira, kooperatiben izaeragatik kontratu publikoen helburu berberak bilatzen dituztelako, kontratazioa gizartearen aurrean erantzulea denean. Kooperatibak duen hurbiltasun-lotura eta gizartean errotzeagatik hautagai egokienak dira zerbitzu publiko iraunkorren kontratuetarako.

Josune López Rodríguez: "La contribución de las cooperativas de trabajo asociado al desarrollo local sostenible a través del empleo verde"

Jarraian, López Rodríguez doktoreak aztertu zuenez, garapen iraunkorraren eta kooperatiben artean lotura dago. Kooperatibetako bazkideek euren komunitateen garapen iraunkorra lortzeko politikak bultzatu behar dituzte. Lan elkartuko kooperatibek enplegu duinak eta iraunkorrak sortu behar dituzte, eta aldi berean, enplegu berdearekin lotu behar dira, hots, ingurumenean enpresen eragina gutxitzen duen enplegua. Bazkideek erabaki behar dute norainoko konpromisoa duten komunitatearekin eta enplegu berde eta duinekin; halaber, neurrien jarraipena eta ebaluazioa kooperatibaren sozietate-kontseiluak egin beharko luke.



Francisco Javier Arrieta Idiakez: “Cooperativas de plataforma como vía para la participación en el empleo de personas vulnerables”

Amaitzeko, Arrieta Idiakez doktoreak erakutsi zuenez, badira plataforma digitaleko kooperatibak zazpigarren printzipioa lortzeko tresna egokia izanik, hots, kooperatibak diharduen komunitatearen garapen iraunkorra lortzeko. Elkarlaneko ekonomiak plataformako kooperatibak finantzatu eta eusteko bideratu daiteke. Horrela, pertsona zaurgarriak aldi berean autonomo kolektiboak badira, plataformako kooperatiben bidez antola daitezke elkarlaneko ekonomian komunitateari gizarte-zerbitzuak emateko.

Kongresuaren bukaeran hiru ikertzaileek euren komunikazioak aurkeztu zituzten. Victória Corrêa Lima de Mirandak kooperatibak pertsonak gizarteratzeko tresna gisa jorratu zituen; Norma Riaño Díazek Jokabide-kodeen erabilgarritasunari buruz hitz egin zigun komunitate-sentimenduaren printzipioa mamitzeko; eta amaitzeko, Guilherme Kruegerrek bere komunikazioan azaldu zigun kooperatibismoa subsidiaritatearen printzipioa adierazteko bide praktiko bezala.